

**UDALBATZAK 2012KO IRAILAREN 25EAN EGINIKO OHIKO OSOKO BLKURARI
DAGOKION AKTA**

Errenteriako udaletxean bi mila hamabiko irailaren 25eko arratsaldeko 18:30 zirela, lehenengo deialdian eta Julen MENDOZA PEREZ alkate jaunaren esanetara, ondoko zinegotziak elkartu dira:

- Garazi LOPEZ DE ECHEZARRETA AUZMENDI
- Luis Maria DIEZ GABILONDO
- Miren Alazne KORTA ZULAIKA
- Unai UNSUAIN ELVIRA
- Irune BALENCIAGA ARRESE
- Jon TXASKO ORGILLES
- Asier MUJIKA ETXANIZ
- Isaac PALENCIA CABALLERO
- Maria RODRIGUEZ RODRIGUEZ
- Joaquin ACOSTA PACHECO
- Joseba ECHARTE MARTIN
- M^a Angeles MACHIN RODRIGUEZ
- M^a Angel RODRIGUEZ MEDINA
- M^a del Mar CARRILLO GASCON
- Maite PEÑA LOPEZ
- Jose Ignacio IRASTORZA GARCIA
- Marta BAREA JUARISTI
- Jose Manuel HERZOG DE BUSTOS
- M^a Angeles BASTOS FERNANDEZ
- Jose Manuel FERRADAS FREIJO

Bertan dago, egintza egiaztatzeko, Begona BUENO BARRANCO idazkariordea.

Gai Zerrendako kontuekin hasi aurretik.

* Mendoza alkate jaunak (O.E. BILDU) esan du, alde batetik, akats bat egin dutela urtean zehar erretiroa hartzen dutenei deia egiteko garaian, izan ere, ohiko plakak jasotzera etortzeko deia batzuei seiak eta laurdenetan eta besteei seiak eta erdian egin baitiete. Bestalde, justu osoko bilkura hasi aurretik, aurreko mozioaren ordezkotzat aurkeztu dute, eta talde zenbaitek eskatu du berori aztertzeke etenaldi bat egiteko. Hortaz, 10:30 zirela, bost minutuko etenaldia egiteko baimena eman du, eman beharreko plakak eman eta ordezkotzat mozioa aztertzeke.

Bilkurari berriro hasiera eman diete 18:45 zirela.

1. Udalbatzak 2012ko maiatzaren 29an eta ekainaren 26an eginiko ohiko bilkurei dagozkion akten irakurketa eta onespena, bidezkoa bada.

Idazkariorde nagusiak 2012ko maiatzaren 26ko eta ekainaren 29ko aktak irakurri ditu ondoren.

Onartu dituzte inolako aldaketarik egin gabe.

2. Ebazpenen berri ematea: Alkatearenak (586 zk.tik 870 zk.ra, biak barne), Zinegotzi-ordezkarienak (1015 zk.tik 1192 zk.ra, biak barne) eta Tokiko Gobernu Batzarrarenak.

Idazkariak ondoko ebazpenen berri eman du: Alkatearenak (586 zk.tik 870 zk.ra, biak barne), Zinegotzi-ordezkarienak (1015 zk.tik 1192 zk.ra, biak barne) eta Tokiko Gobernu Batzarrarenak.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

3. Hauteskunde-mahaiak osatzeko zozketa.

Euskal Autonomia Erkidegoko Hauteskundeak egiteko deialdia onartu zen Lehendakariak, abuztuaren 27an, Euskal Legebiltzarra desegin eta hauteskundeak deitzeko 12/2012 Dekretua onartu zuelako, eta Hauteskundearen Araubide Orokorren 5/1985 Lege Organikoaren, **Ekainaren** 19koa, 26. artikulua dioenari jarraiki, dagokien hauteskunde-mahaiko hautesle-zerrendan dauden pertsona guztien artean zozketa egin behar da mahai bakoitzeko Presidentea eta Bokalak aukeratzeko, beti ere irakurtzen eta idazten ez dakitenak eta hirurogeita hamar urte baino gehiago dituztenak baztertuta.

Alkateak proposatuta.

Udalbatzak, aho batez,

E R A B A K I D U

LEHENENGO. Zozketa publikoa egitea Hauteskunde-mahai bakoitzeko Presidentea eta Bokalak izendatzeko, hala nola Mahai bakoitzeko bost ordeko izendatzeko. Beroriek espedientean jasota dagoen bezala eratuta geratu dira.

4. Alkatetzak 2012ko uztailaren 27an emaniko dekretuaren berri ematea, Udalaren Kirol Patronatuko lehendakaritza Unai Unsuain Elvira jaunaren esku ezteko.

Idazkariak Alkatetzak 2012ko uztailaren 27an emaniko dekretuaren berri eman du. Honek hitzez hitz zera dio:

"Legeak ematen dizkidan eskumenez baliatuta, ondorengo DEKRETUA eman dut:

AURRERAKINAK

Ikusita egun Errenteriako Udalaren Kirol Patronatuaren lehendakaria, Alkatetzak honek eskuordetuta, **Jose Manuel FERRADAS FREIJO** jauna dela.

E B A T Z I D U T

Lehenengo. Baliogabetzea **Jose Manuel FERRADAS FREIJO** jaunari eskuordetutako "*Udalaren Kirol Patronatu*"ko lehendakaritza.

Bigarren. **Unai UNSUAIN ELVIRA** jaunari eskuordetzea "*Udalaren Kirol Patronatu*"ko lehendakaritza, Udal honetako administrazio izaerako erakunde autonomoak. Jaun honek, ordezkaritza honen baitan, Patronatuetako lege eta estatutuek lehendakaritzari ematen dizkieten eskumenak baliatu ahal izango ditu.

Hirugarren. Ordezkaritza hau indarrean sartuko da ebazpen hau jakinarazten den biharamunean. Behin-betiko izaera izango du, baina Alkatetzak indarririk gabe uzteko eskumena izango du. Horrez gain, 24 orduren barruan ez badu ezer esaten edo eskuordetzea baliatzen badu eskumena onartu duela ulertuko dut.

Laugarren. Ebazpenaren berri ematea zinegotziei. Bertan jakinaraziko zaio eskuordetze honen baitan egiten dituenak Alkatetzari adieraziko beharko dizkiola eta ezin izango duela eskuordetze berririk egin hirugarren bati.

Bosgarren. Dekretua argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaleko Informazio Buletinean, Herri Administrazioen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren erregelamenduaren 44.2 artikuluan xedatutakoa betez, 2568/1986 Errege-dekretu bidez onartua, azaroaren 28koa.

Seigarren. Ebazpen honen berri ematea Udalbatzak egingo duen lehenengo osoko bilkuran, eta edukia Udalaren Kirol Patronatuari jakinaraztea".

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

5. Errenteriako Ezkerra udal taldeak aurkezturiko idatziaren berri ematea, Udalaren Kirol Patronatuan izango dituen ordezkariak izendatuz.

Errenteriako Ezkerra udal taldeak aurkezturiko idatziaren berri eman da. Bertan Kirol Patronatuko ordezkariak nor izango diren jakinarazten da:

- Jose Manuel Ferradas.

Ordezkoa:

- Jose Cruz Legorburu.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

6. Euskal Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak 327/2012 administrazioarekiko auzi-helegitean emaniko epaiaren berri ematea, hain zuzen Errenteriako Udalak telefono mugikorraren zerbitzua ematen duten enpresek udal jabariaren erabilera pribatua eta aprobetxamendu berezia egiteagatik ezarri zitzaien tasei buruzko zerga-ordenantza onartu zuelako 2010-01-29an -2010-02-05eko GAOn, 23 zk.an, argitara emana-. Helegite hau "Telefónica Móviles España S.A.U."-k tarteratua zen.

Idazkariak ondoko epaiaren berri eman du: Euskal Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak 327/2012 administrazioarekiko auzi-helegitean emaniko epaia, hain zuzen Errenteriako Udalak telefono mugikorraren zerbitzua ematen duten enpresek udal jabariaren erabilera pribatua eta aprobetxamendu berezia egiteagatik ezarri zitzaien tasei buruzko zerga-ordenantza onartu zuelako 2010-01-29an -2010-02-05eko GAOn, 23 zk.an, argitara emana-. Helegite hau "Telefónica Móviles España S.A.U."-k tarteratu zuen.

Idazkariordeak Auzitegiaren epaia irakurri du, zeinak hitzez hitz zera baitio:

"Adierazitakoaren aurrean Sala honek

E R A B A K I D U

Baietsi behar dugu eta partzialki baiesten dugu TELEFONICA MOVILES ESPAÑA S.A.U.k Errenteriako udalak 2010eko

urtarrilaren 29an hartutako akordioaren aurka tarteraturiko administrazio-auzia, hain zuzen Errenteriako Udalak telefono mugikorraren zerbitzua ematen duten enpresek udal jabariaren erabilera pribatua eta aprobetxamendu berezia egiteagatik ezarri zitzaien tasei buruzko zerga-ordenantza onartu zuelako behin-betikotasunez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2010eko otsailaren 5ean, 23 zk.an, argitara emana, eta ondorioz, indarririk gabe uzten dugu zenbatekoari dagokiona, hau da, 6. artikulua".

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

7. Proposamena: Auzitegi Gorenaren Administrazioarekiko Auziaren Salan agertzeko, Lezoko Udalak, 1658/2010 Ohiko Errekurtsoaren gain ateratako 428/2012 epaiaren aurka, tarteraturiko Kasazio-errekurtsoa dela eta.

GAIA: Auzitegi Gorenaren administrazioarekiko Auziaren Salan, administrazio ko-demandatu gisa, agertzeko jakinarazpena, hain zuzen Udalaren interesen aldeko epaiaren aurrean kasazio-errekurtsoa iragarri duelako, Pasaiako Portuko Agintaritzaren Administrazio Kontseiluko bokalak izendatzeko Eusko Jaurlaritzaren irailaren 14ko 236/2010 Dekretua inguruan (2010eko irailaren 30eko EHAA) 1658/2010 Ohiko Errekurtsoaren gain ateratako 428/2012 epaiaren aurka Lezoko Udalak tarteraturiko errekurtsoaren baitan emaniko 428/2012 zk.ko epaia.

428/2012 epaia 1658/2010 zk.ko administrazio auzi-errekurtsoan emana izan da, Euskal Erkidegoko Justizia Gorenaren Auzitegiaren administrazioarekiko Salan bideratua.

Kontua da argitu behar dela Pasaiako Portuko Batzordeko udal-ordezkarria Lezoko Udalekoa izan behar duen edo Errenteriako Udaleko partaidea izan behar duen, hain justu Errenteriak portuan duen eremuaren arabera. Izan ere, jakina baita Pasaiako Udalak Errenteriari dezenteko kaltea egiten dion eremuak eskatzen baititu, eta beraz, lehen aitaturiko lurzorua dezente murriztuko bailitzateke.

Idazkariak gai honi buruz eginiko txostena aztertu eta gero.

Alkateak proposatuta.

Udalbatzak, aho batez,

E R A B A K I D U

1. Onartzea Errenteriako Udala agertzea Auzitegi Gorenaren administrazioarekiko Auziaren Salan administrazio ko-demandatu gisa, hain zuzen Udalaren interesen aldeko epaiaren aurrean kasazio-errekurtsoa iragarri duelako, Pasaiako Portuko Agintaritzaren Administrazio Kontseiluko bokalak izendatzeko Eusko Jaurlaritzaren irailaren 14ko 236/2010 Dekretua inguruan (2010eko irailaren 30eko EHAA) 1658/2010 Ohiko Errekurtsoaren gain ateratako 428/2012 epaiaren aurka Lezoko Udalak tarteraturiko errekurtsoaren baitan emaniko 428/2012 zk.ko epaia dela-eta.

2. BJLOren 543. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako Udala ordezkatzeko izendatzea Epaitegietako prokuradore Ramino Reynolds Martinez jauna, eta defentsa-lanak Udalaren zerbitzu juridikoak egin ditzan eskatzea.

8. Proposamena: 2012. urterako Errenteriako Udalaren lanpostu-zerrenda eta langileen plantilla aldatzea.

Egungo lanpostu-zerrendan garbitzaile-lanpostu gisa zazpi langile-kopuru -5257 kodearekin- azaltzen dira, eta horietatik 3 hutsik daude.

Aspaldiko urteetan sortu zirenetik izandako esperientzia dela-eta, uste dugu hutsik dauden lanpostuen dedikazioa aldatu behar dela udal eraikinetako garbitasun-zerbitzua optimizatu ahal izateko.

Zerbitzu hori lokal-kopuru dezentetan egin behar izaten denez, hainbat denboraldiko aldaketa eragiten du, eta horregatik, uste dugu, zerbitzuaren zirkunstantziaren arabera, egokia dela dedikazio partzialak izendatzea.

Horrela, dedikazio osoa duten 3 lanpostu, dedikazio partzialeko 7 lanpostutan bihurtzea planteatzen dugu, hain zuzen lehenengoak ezabatu eta bigarren sortuta, zerbitzuaren eraginkortasuna hobetzen lagunduko duelakoan.

Gainera, argitu behar da lanpostu-aldaketa honekin eta ondorengo plantilla aldaketarekin garbitasun-zerbitzura izendaturiko dedikazioaren aldaketa egin aurrean bezala mantentzen dela, eta beraz, kostuak ere ez direla igoko.

Bestalde, udal eraikinen garbitasun-zerbitzua funtsezko zerbitzu publikoen taldekoa da, eta hortaz, jarduerak egiten diren funtzionamendurako premiazko behar bat da.

Kontuan izanik Udalak eskumena duela lanpostu-zerrenda bidez bere antolaketa egituratzeko, halaxe diotelako Enplegu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 74. artikuluek, 7/2007

Legeak, apirilaren 12koa, hala nola Euskal Funtzio Publiko Legearen 13. artikuluek.

Lehendakaritza eta Barne-antolaketako batzordeak proposamena ikusitakoan.

Mintzatu dira:

* Rodriguez jaunak (Socialistas Vascos - Euskal Sozialistak) esan du ondo iruditzen zaiela hutsik dauden lanaldi osoko hiru lanpostuak, lanaldi partzialeko zazpi lanpostutan bihurtzeko proposamena, batez ere bi arrazoiengatik. Hiri Mantentze Saileko arduradunak eginiko txostenaren arabera, zerbitzua hobetu egingo da. Gainera, bihurtze hau lan-banaketaren filosofiarekin uztartzen da, izan ere, ekonomikari aurrerakoi ezberdinek adierazten dutenaren arabera, lana banatu behar da lan-eszenatoki berriak bizi ditugulako. Gisa honetan, urtean bataz besteko soldata hartuta urteko 24.000 euro suposatzen zuten hiru lanpostuak zazpitan bihurtuko dira, bataz beste 11.000 euro hurbil izatera pasako da hiru orduko lanaldiarekin, noizbehinkako beste diru-sarrerekin bateragarria izango dena. Gaineratu duenez, diru-sarrera horiek zer suposatzen duten jakiteko kontuan izan behar dute Errenteriako PFEZ-ren bataz besteko errenta 17.000 euro ingurukoa dela. Hori horrela, bestalde, ohartu dira, Giza Baliabide Saileko teknikaren txostenean lauso antzean aitatzten denaren arabera, sakon-sakonean lortu nahi dena Etxez Etxeko udal langileen antzinako eskari bat asetzea dela, beroriek, bataz besteko 12.000 euroko soldatarekin, lanaldi partzialez aritzen direlako. Ohar horrek zalantza handiak sortarazi dizkie, eta horregatik bere taldea abstenituko da. Era berean, osoko bilkuran bozkatzeko kontua ez bada ere, Gobernu Taldeari eskatzen die plaza horiek denboraldi batez langabezian egon eta bestelako diru-sarrerarik ez duten jendearekin betetzeko.

Mintzaldiak amaitutakoan.

Udalbatzak, gehiengoz, aldeko 14 botorekin (O.E. BILDU, Errenteriako Ezkerra, EAJ/PNV, PP) eta 7 abstentziaz (Socialistas Vascos - Euskal Sozialistak),

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- Lanpostu-zerrenda ondorengo eran aldatzea:

1. Ezabatzea hiru langile-kopuru, 5257 kodeduna, gisa horretan 7tik 4ra pasako delarik, denak ere beteta zeudenak.

2. Garbitzaile-lanpostu berri bat sortzea, 5256 kodeduna, 7 langile-kopururekin, denak bete gabeak. Lanpostu berri honek, lanaldia izan ezik, % 42,85 izango duelako, 5257 kodeko postuaren ezaugarri berdinak izango ditu.

BIGARREN. Oraingo langileen plantilla aldatzea ondorengo eran:

A) Ondoko lanpostuak ezabatzea:

1. Funtzionarioak:

- 3 garbitzaile, PT sailkapen taldean kokatuak (lehengo E taldea) eta Administrazio Bereziko eskalakoak, Zerbitzu Berezien azpieskala eta Betebehar Bereziak dituzten klasekoa.

A) Ondoko lanpostuak sortzea:

1. Funtzionarioak:

- 7 garbitzaile, PT sailkapen taldean kokatuak (lehengo E taldea) eta Administrazio Bereziko eskalakoak, Zerbitzu Berezien azpieskala eta Betebehar Bereziak dituzten klasekoak, %42,85 lanaldiarekin.

HIRUGARREN.- Langileen plantillan egindako aldaketa argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta 15 egun uztea erreklamazio eta iradokizunak egiteko. Epe horretan inork ez balu erreklamaziorik egingo, egindako aldaketa behin-betikoa joko litzateke.

LAUGARREN. Lanpostu-zerrendaren aldaketak eragina izango du langileen plantillaren aldaketa behin-betikotasunez onartutzat jotzen denean.

Jarraian.

Aldez aurretik, gaia zegokion batzordean ez delako ikusia izan, **presa aho batez berretsi ondoren**, ondoko puntua aztertu dute.

9. Udalak Kutxako Batzar Nagusian izango duen ordezkariaren izendapena.

Alkate honi Kutxako Hauteskunde-batzordeko buruak zirkular bat bidali dio.

2012Ko irailaren 25ean, Socialistas Vascos - Euskal

Sozialistak udal taldeak proposatu du Kutxako Batzar Nagusirako ondoko partaideak izendatzea:

- Titularra: Pedro M^a Fernandez Otero jauna (NAN: 15149310-S).
- Ordezkoa: Inmaculada Triano Pouso andrea (NAN: 27298368-J).

2012Ko irailaren 25ean O.E. BILDU udal taldeak proposatu du Kutxako Batzar Nagusirako ondoko partaideak izendatzea:

- Titularra: Mikel Mirena Lizarralde Recarte jauna (NAN: 72418630-W).
- Ordezkoa: Mikel Carcedo Mitxelena jauna (NAN: 44150807-F).

Ondoren mintzatu dira:

* Rodriguez jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) esan du bere taldeak eginiko proposamenari ezer gutxi duela gehitzeko. Hau da, Pedro M^a Fernandez Otero izango litzateke titularra eta Inmaculada Triano Pouso ordezkoa.

* Ferradas jaunak (Errenteriako Ezkerra) esan du ez duela bi hautagaitzen bakar baten alde egingo, bere taldea oso kritikoa delako Kutxabank sortzeko eraman den prozesu guztiarekin, Eusko Legebiltzarrean onarturiko Kutxa-legearekin errematatua izan dena, eta, ziur aski, denbora gutxiren buruan, Gobernu zentralak hartuko dituen neurriekin pribatizaera indartuko duena. Bere garaian udal eta aldundietatik bultzaturiko obra sozialarekin zerikusi gutxi duena. Ezin du esan gabe utzi, udalek ahalmen osoa beharko luketela herriko interesak hobekien defendatuko lukeen pertsona hautatzeko, baina baldintzak irakurri ondoren, konturatu da horietako bat Kutxan kontua izatea dela. Hortaz, harritzekoa ere bada, Kutxak hautatu behar dutenari baldintzak ipintzen dizkie.

Herzog jaunak (PP) esan du praktikak erakusten duela bankaren kudeaketa pribatua publikoa baino askozaz eraginkorragoa dela. Bere iritziz, kudeaketa publikoa beti interesek biziaria etortzen da, batzuetan argi eta garbi daudenak eta bestetan ez hain argi. Bere taldea ados dago Kutxak ez ditzakeela izan bere batzarrean, aldi berean, kargu publikoa dutenak, eta beraz, alderdiko ideien eraginarekin. Eurek bat datoz Kutxak egiten duen proposamenarekin, eta beraz, egun horretan bizi duten prozesuarekin.

Mintzaldiak amaitutakoan.

Ondoren, Socialistas Vascos - Euskal Sozialistak udal taldeak eginiko proposamena bozkatu dute.

Udalbatzak, gehiengoz, aldeko 12 botorekin (Socialistas Vascos - Euskal Sozialistak, EAJ/PNV, PP), 8 boto aurka (O.E. BILDU) eta abstentzio 1-ekin (Errenteriako Ezkerra),

E R A B A K I D U

Pedro M^a Fernandez Otero jauna (NAN: 15149310-S) izendatzea Udalbatza honek Kutxako Batzar Nagusian izango duen ordezkari, eta ordezkoa, berriz, Inmaculada Triano Pouso andrea (NAN: 27298368-J).

Jarraian.

Mintzatu dira:

* Mendoza alkate jaunak (O.E. BILDU) esan du emaitza ikusi ondoren ez duela bozkatzeko jarriko O.E. BILDUren proposamena, baina bozeramaileari hitza emango dio proposamena defendatzeko.

* Diez jaunak (O.E. BILDU) esan du agerian dagoen moduan ez dela bozkatuko euren proposamena. Izan ere, bat datoz PP, EAJ eta PSE bat datoz alderdi Sozialistak eginiko planteamenduarekin. Haatik, azken bolada honetan ikusten ari dira Udalak gai garrantzitsuari buruz hartu beharreko erabaki inportanteetan argi eta garbi egungo Gobernu Taldea jokoz kanpo uzten dutela. Gaineratu duenez, argi dago hori legezkoa eta errespetagarria dela, eta ez dute hori ukatzen. Gainera, konturatu dira epe laburrera hauteskundeak daudela, eta hiru talde politikoen artea adosturiko erabakiak zer pentsatua ematen die. Berriro dio errespetagarria dela, baina uste dute, datozen hauteskundeak direla-eta, adierazle bat izan daitekeela. Gaineratu duenez, bakoitzak hautatzen du nor eramán nahi duen bidelagun, nor egokitzen den hobekien interes partikularrei, baina, era berean, esan nahi die gogoan hartuko dituztela zirkunstantzi hauek eta dagokien terminoetan aztertuko dituztela.

Mintzaldiak amaitutakoan.

* Mendoza alkate jaunak (O.E. BILDU) esan du Gai Zerrendako 10. eta 11. puntuetako mozio-proposatzaile Socialistas Vascos - Euskal Sozialistak eta Errenteriako Ezkerra udal taldeek ondoko bi mozioak

"10. Mozioa, Errenteriako Udaleko Sozialistak udal taldeak Espainiako

Gobernuak Emakumeek haurdunaldia euren borondatez eteteari buruzko 2/2010 legea aldatzeko Madrileko Gobernuak egindako iragarpena dela-eta aurkezturikoa.

11. Mozioa, Errenteriako Ezkerra udal taldeak emakumeek haurdunaldia euren borondatez etetea duten eskubideari buruz aurkezturikoa."

batu ondoren, bat bakarra aurkeztu dutela, eta Machin andreari (Socialistas Vascos - Euskal Sozialistak) hitza eman dio azalpena egiteko.

* Machin andreak (Socialistas Vascos - Euskal Sozialistak) irakurri du Socialistas Vascos - Euskal Sozialistak eta Errenteriako Ezkerrak udal taldeek izenpeturiko mozioa:

"MOZIOA, SEXU ETA UGALKETA-OSASUNARI ETA HAURDUNALDIA BERE GOGOZ ETETEKO ESPAINIAKO GOBERNUAK 2/2010 LEGEA BERRITZEKO EGINIKO IRAGARPENA DELA ETA.

Toki-erakundeen antolamendu, funtzionamendu eta araubide juridikoaren arabera eta honen babespean, Errenteriako Udaleko PSE-EE eta Ezker Anitza - IUk Udalbatzaren baitan jarri nahi dute ondoko MOZIOA:

Egungo Espainiako gobernuak argi eta garbi adierazi duenez sexu eta ugalketa-osasunari eta haurdunaldia bere gogoz etetea 2/2010 legea, asko murriztuz eta eskubideak kenduz, berritzea asmoa du. Hori dela-eta 140 baino gehiago emakume-elkarte, osasuna defendatzeko kolektibo eta giza-elkarte elkartu dira "Erabakitzeak libreagoak egiten gaitu" lelopean, hain justu euren haurdunaldia libreki etetea eskubidearen -Emakumeen Giza Eskubideen oinarritzakoa- aldeko apustu garbia egiten dutelako, eta eskubide hori ez dezakeelako Kode Penalak arautu.

PPren gobernuak, emakumeen eskubideak murriztuz, politikariek kontserbadoreena aplikatzea erabaki du. Eskubide-galera honek emakumeen osasuna eta bizirako arriskuak izango lituzke, gisa horretan, Europako eta nazioarteko araudia -sexu eta ugalketari buruzko eskubideak babestu eta segurtasun-juridikoa berrestekoa- Estatuak ezkututzen duelarik.

Emakumeek euren gorputz eta biziei buruz duten erabakitzearen eskubidea aurrez aurre jarrita dago Gobernuak iragarritako berritzea honekin inposatu eta emakumeak diskriminatzen dituen feminitate-prototipoarekin.

Mozio honekin Nazio Batuak duela gutxi Estatu espainolari -Eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen Nazioarteko Ituna (PIDESC) betetzen den ikusteko egina- eman dizkion aholkuei jarraitzen diogu, bertan aitortzen direlako lanerako, hezkuntzarako, gizarte-segurantzarako eta osasuna ahalik eta gehien bermatzeko eskubidea; buru-osasuna, sexuala eta ugalketarena, inolako diskriminaziorik gabe, barne direla. Aholku horietan, Nazio Batuak Estatu espainolari aholkatzen dio 2010eko martxoaren 3ko 2/2010 Lege Organikoa lurralde nazional osoan aplikatzeko eta erkidego guztiei oinarritzko prozedura komuna jarraitzeko haurdunaldia bere borondatez eteteko garaian atzipen zuzena bermatu ahal izateko; halaber, ziurtatzeko medikuek eta gainontzeko osasun-langileen kontzientzia-eragozpena ez dadin izan oztopo bat nahi duten emakumeek haurdunaldia eteteko orduan.

Hori guztiagatik, proposatzen dugu ondoko puntuak onartu eta Madrileko gobernuari beroriek bidaltzea:

1. Udal honek bat egiten du Sexu eta Ugalketa Eskubideak defendatzeko Estatuko plataformak, 140 baino gehiago gizarte eta emakume-elkarte batzen dituenen, "Erabakitzeak libre egiten gaitu" adierazpenarekin. Eta tokiko komunikabide eta ekintzen bidez ahalik eta gehien zabalduko du.

2. Estatuko gobernuari exijitzen dio bere horretan utz dezan 2/2010 Legea, martxoaren 3koa, sexu eta ugalketa-osasuna eta haurdunaldia bere borondatez eteteko, hala nola emakumeek haurdunaldi euren borondatez eteteko duten eskubidea balia dezaten bermatzeko.

3. Indarrean dagoen testuan aitortuta dituzten eskubideak zabaltzeko, hain zuzen, "Plataforma Mujeres ante el Congreso" delakoaren adierazpenean emakumeen hainbat elkarteek aldarrikatzen dutenetik, gutxienez ondokoak aitortzeko:

- Erabat despenalizatzea borondatezko haurdunaldia-etena, Kode Penaleko egungo punitzea kenduta.
- Ahalmen osoa izatea emakumeek, gazteak barne, euren amatasunari eta biziari buruzko erabakiak hartzeko.
- Egoera irregularrean dauden emakume-immigranteei ziurtatzea osasun-zerbitzu osoa, baita haurdunaldia euren borondatez eten nahi badute ere.
- Sexu eta ugalketa-eskubideak sartzea medikuntza,

erizaintza eta beste giza-osasun eremuko ikasketetan; halaber prestakuntza-ekitaldietan, baldin eta, genero-ikuspegitik ahalmentzen badute haurdunaldia bere gogoz eteteke -kirurgia naiz farmakologia aldetik- prestatukoak, hain zuzen burutzen dituzten adituen prestaketa integrala bermatzeko.

4. Errenteriako Udalbatzak bat egiten du mugimendu feminista eta emakume-elkarteek, izenpeturiko akordioak direla-eta, egin ditzaketan adierazpen ororekin".

Ondoren mintzatu dira:

* Machin andreak (Socialistas Vascos - Euskal Sozialistak) esan du sexualitatearen garapena eta sorrarazte-ahalmena pertsonaren duintasunari hurbil-hurbiletik lotuta dagoela. Haren aburuz haurrak izateko eta noiz izateko erabakia pertsonaren barru-barruko kontua da, eta pertsona beraren askatasun osoari loturikoa da. Emakumeontzako -dio-, amatasuna eta haurdunaldia, zentzu guztietan gure biziari sakon eragiten dien gertaerak dira. Hamarkadatan zehar, elkarte, plataforma eta gainontzekoetako hainbat emakumek borrokatu du antisorgailu-metodoak libreki eskuratzeko eta abortatzeko eskubidea izateko helburu amankomun batekin. Hots, emakume guztiek sexu eta ugalketa askatasuna izateko eskubidea. Laurogeigarren hamarkadan, alderdi Sozialistak onartu zuen 9/1985 Lege Organikoa, uztailearen 5ekoa, kasu jakin batzuetan abortua ez zigortzekoa. Gaurko gure ikuspegitik urriegitzat har liteke, baina nahikoa urte haietan eman ziren urratsentzako. Bestalde, Beijineko ekintza-plataformak, 1995ean emakumeei buruz Nazio Batuetan eginiko konferentzian, aitortu zuen emakumeen giza-eskubideen barruan sartzen zela emakumeak bere sexualitateari buruzko kontrola izateko eta libreki erabakitzeko duten eskubidea, osasun sexuala eta sortzekoari buruzko erabakiak inongo presiorik, diskriminaziorik eta indarkeriarik gabe hartzekoa barne. Mozio honetan -dio- Nazio Batuak Estatu Espainolari duela gutxi, eskubide ekonomiko, sozial eta kulturen inguru Nazioarteko Ituna-betetzearen berrikuspenera dela-eta, emaniko aholkuak aintzat hartzen dira. Bertan aitortzen dira lanerako, hezkuntzarako, gizarte-segurantzarako eta osasuna ahalik maila altuenean bermatzeko eskubidea, buru-osasuna, sexuala eta ugaltzekoa, inolako diskriminaziorik gabe, barne dela. Nazio Batuak aholku horiekin Estatu espainolari aholkatzen dio oso-osorik aplikatzeko lurralde osoan 2/2010 Lege Organikoa, martxoaren 3koa, eta erkidego guztietan oinarritzeko prozedura komun bat hartzeko haurdunaldia bere gogoz eten ahal izateko bidezko

aukera bermatzeko, gisa horretan medikuen kontzientzi-eragozpena eta beste osasuneko langileriarena ez dadin izan oztopo bat haurdunaldia eten nahi duten emakumeentzako. Eurek mozio hau aurkeztu dute, hain zuzen atzerapen bat ikusten dutelako 2010eko martxoaren 3ko Lege Organikoa berritu nahi izatean, eta 1985eko Lege Organikoan bihurtuko nahi dutelako Gallardon jaunak eta Alderdi Popularrak. Haren esanetan emakumeek eskubidea dute, kanpotik inolako presio eta bortxarik gabe, amatasuna eta hazkuntzari dagokiona noiz eta nola egin nahi duten erabakitzeke, izan ere, erabakitzeak berak libre egiten baititu. Hortaz, gainontzeko udalbatzar-kideei eskatzen die mozioaren aldeko bozka emateko.

* Ferradas jaunak (Errenteriako Ezkerra) esan du mozioa aurkeztu dutela gobernu-ingurutik zalantzan ipintzen ari direlako emakumeek, batez ere gazteek, euren biziari buruz erabakiak hartzeko duten ahalmena dela-eta. Haren esanetan, zalantzan ipintzen ari dira emakumeek euren haurdunaldia euren gogoz eteteko duten eskubidea, eta zentzu horretan uste du oinarrizko eskubide hori defendatzeko garaian indarrean dagoen Legea, izatekotan, zabaldu egin beharko litzakeela, hain zuzen, haurdunaldia euren borondatez etetea batere zigortu gabe. Bere taldeak uste du erreforma hori egin beharko litzakeela, eta, jakina, ez dute, ez bidezkoa ez beharrezkoa ikusten, gizarte honetako sektorerik kontserbadoreenari erantzun eta asetzen duen lege bat egitea.

* Herzog jaunak (PP) esan du mozioak azalpen-zati bat eta ebazpen-zati bat dituela. Haren arabera, aurkezten duenaren ohiturari jarraiki, azalpen-zatian zuzen-zuzenean erasotzen da Nazioaren Gobernu-politika, eta ondorioz, eurek ez dute hori aboratzeko asmorik. Eurek soilik ebazpen-zatia aitatzeko dute, alegia, Errenteriako Alderdi Popularraren ordezkariak sostenga ditzaketen puntuak bakarrik. Denen aldeko jarrerarik ez dezaketenez hartu, arren eskatzen die mozioa proposatu dutenei ebazpen-zatia puntuz puntu eztabaidatzeko, bestela, erremediorik gabe, aurkako bozka eman beharko luketelako.

* Mendoza alkate jaunak (O.E. BILDU) proposamena egin dutenei galdetu die ea prest dauden PPren bozeramaileak eginiko proposamena onartzeko.

* Ferradas jaunak (Errenteriako Ezkerra) esan du berak ez duela uste PPren ordezkaria bozketa puntuz puntu egin dadin eskatzen ari denik. Horrela balitz, berak ez luke inolako eragozpenik izango, gaineratu du.

* Herzog jaunak (PP) esan du, mozioaren ebazpen-zatia

puntuz puntu sostengatu ahal izateko, eurek zuzenketa bat egitea proposatzen dute. Izan ere, aurreko kasuan bezala, batzuk zuzendu eta besteak ez, egin beharko lukete. Puntuz puntu eta bere Taldeak kasu bakoitzerako proposatzen duen aldaketa aitatu beharko litzateke. Bestela, bat bestearen ostean aurka bozkatu beharko lituzke, hots, zuzenketa planteatzen ez duten haietan izan ezin, horiek lehenengoa eta hirugarrenaren lehenengo zatia direlarik.

* Rodriguez jaunak (Socialistas Vascos - Euskal Sozialistak) esan du, proposamen egileak izanik, ez dutela onartzen PPren bozeramaileak eginiko eskaera.

* Peña andreak (EAJ/PNV) andreak esan du 2/2010 Lege Organikoa, Sexu- eta ugalketa-osasunaren eta haurdunaldiaren borondatezko eteteari buruzkoa, aurrera ateratzea asko kostatzen legez polemikoa izan zela. Haren ustez ez daitezke aintzat hartu gabe utzi erreforma horren aurkako jarrera hartu duten kolektiboak. EAJk uste du une hau ez dela atzera egitekoa, aurrera urratsak ematekoa baizik, eta hortaz, puntuz puntu edo osotasunean, mozioaren aldeko bozka emango dutela, gaineratu du.

* Lopez de Echezarreta andreak (O.E. BILDU) esan du eurek ere Espainiako Ministerioak iragarritako Sexu- eta ugalketa-osasunaren eta haurdunaldiaren borondatezko etendurari buruzko 2/2010 Legea indarririk gabe uztearen aurka daudela. Gaineratu duenez, Berdintasun arloan aurreko astean Errenteriako emakumeen aztarnak berreskuratzeari buruz ari zirela, azken hogeita hamar urtetan mugimendu feministak eginiko lana eta borroka baloratzen aritu ziren. Borroka horren ardatzetako bat emakumeok gure gorputzaren gainean dugun eskubide osoaren defentsa izan da. Saio hartan garai haietako hainbat argazki agertu ziren, sexualitatearen eta haurdunaldia etetearen gainean eduki behar dugun askatasuna aldarrikatzen zutenak. Erakutsi zigunak ezagutzera eman zigun emakumeen borrokari esker lortu direla hainbat eta hainbat gauza, eta berreskuratu edo konkistatu diren eskubidetan ezin dutela atzera egin. Berak aurkakoa esango luke, hots, aurrera egiten jarraitu behar dute ordura arte lortu ez dutena erdiesteko. Haren aburuz 2/2010 Legeak baditu aldatu beharreko arloak, eta egia da lege hori izateko denbora gehitxo pasa dela, baina orain alderdi Popularrak atzera pauso bat eman nahi izatea oso kezagarria iruditzen zaie, horrekin emakumeen erabakitze eskubidea urratu nahi delako. Gainera ezin dute ahaztu lege hori atera zenean, beste leku batzuetan, esaterako, Nafarroan, arazo handiak izan zituztela UPN-ren gobernuak ez zuelako legea aplikatu, eta kolore bertsuko PPkoek bide beretik

jarraitzen dutelako. Hortaz, berak esango liekete begiratzeko Europako beste herrialde batzuetako eredu progresistetan, eta ez Estatu espainoleko 85eko legerian beraien erabakiak hartzeko orduan. Hortaz, eurek ere aldeko bozka emango dute.

Mintzaldiak amaitutakoan.

Udalbatzak, gehiengoz, aldeko 19 botorekin (O.E. BILDU, Errenteriako Ezkerra, EAJ/PNV, Socialistas Vascos - Euskal Sozialistak) eta aurkako 2 botorekin (PP),

E R A B A K I D U

Onartzea "SEXU ETA UGALKETA-OSASUNARI ETA HAURDUNALDIA BERE GOGOZ ETETEKO ESPAINIAKO GOBERNUAK 2/2010 LEGEA BERRITZEKO EGINIKO IRAGARPENARI BURUZKO MOZIOA", akordio honen azalpen-zatian jasota geratu dena.

12. Mozioa, EAJ/PNV talde politikoak herriko hainbat kaleen izenak aldatzeko proposamena eginez aurkezturikoa.

* Peña andreak (EAJ/PNV) esan du beste taldeek adierazi dietela gai hau sakonago aztertu nahi dutela, hain zuzen ahalik eta akordiorik zabalena lortzeko xedearekin.

Horregatik, EAJ/PNV taldeko bozeramaileak eskatuta, gaia mahai gainean geratu da.

13. Mozioa, O.E. BILDUK gaixorik dauden presoen alde aurkezturikoa.

O.E. BILDUK preso-gaixoen eskubideen aldeko mozioa irakurri du. Honek hitzez hitz zera dio:

"Preso gaixoen eskubideen aldeko MOZIOA

Giza eskubideen ikuspuntutik egoera gordina ari gara bizitzen. Azken asteetan, Josu Uribetxeberria presoaren osasun egoera atzera ezina izan dugu mahai gainean. Legea beteaz, eta berandu bada ere, baldintzapeko askatasun egoeran geratu da preso arrasatearra. Hala ere, badira oraindik oso gaixorik eta kartzelan jarraitzen duten presoak. Hamahiru herritar hain zuzen ere. Egoera hau, beren egoera fisikoa eta bere senitartekoen ezinegona okertu eta areagotzea ari da egiten. Pertsona gisa eta preso gisa zor zaizkien eskubideak ukatuz.

Hamahiru preso gaixo hauek, sufritzen dituzten gaixotasunei behar bezalako jarraipena egitea bateraezina da

espetxean egotearekin, honako arrazoi hauengatik: Espetxeak ezin duelako eskaini tratamendu bereziturik; gaixotasun hauek arreta zorrotza behar dutelako; kartzelan egonik, balizko larrialdi baten aurrean erantzunik emateko gaitasun ezagatik; Josu Uribetxeberriaren kasuan, argudio guzti hauek dagoeneko Madrilgo Barne Ministeriotik ere berretsi dira.

Josu Uribetxeberriaren baldintzapeko askatasunaren ondoren, beste hamahiru dira gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten presoak eta aipatutako argudio berdinak kontuan izanik, kaleratu behar direnak. Hamalau preso eta beraien senitartekoak zigor gehigarria ari dira nozitzen. Preso hauei baldintzapeko askatasuna ukatuz, giza eskubideen oinarrizko zutabeak urratzen ari da Madrilgo arduradun politikoak.

Nazioarte zein estatu espainiarreko araudi, zuzenbidearen printzipio eta giza eskubideen aldeko aldarrikapenek, gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten pertsona presoan eskubideak errespetatzeko beharra adierazten dute. Gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten pertsona horiek, beharrezkoa duten tratamendua eta zaintza medikua behar bezalako baldintzetan jasotzea, oinarrizko eskubidea delarik.

Hau guztia kontuan harturik, honako puntu hauek aurkezten ditugu Osoko Udal Batzarrerera, bertan eztabaidatuak eta onartuak izan daitezten:

1.- Udal honek, preso gaixoen egoera larriaren aurrean, bere kezka adierazten du. Era berean indarrean dagoen legea beteaz eta herritarren gehiengoaren borondatearekin bat eginaz, urrats errealak emateko deia egiten dio Madrilgo gobernuari.

2.- Udal honek, nazioarteko eta Espainiako legedia oinarritzat hartuaz, gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten hamahiru presoan baldintzapeko askatasuna eskatzen du. Beharrezkoa duten osasun tratamendua baldintza egokietan jaso dezaten eta egoera honek, bai beraiantzat zein beren senitartekoentzat ere, zigor gehigarria suposatu ez dezan.

3.- Erabaki honen berri, Madrilgo Barne Ministerio eta Kartzela Zaintzako Epaileari bideratzea".

Jarraian.

EAJ/PNVek preso-gaixoen aldeko mozio alternatiboa irakurri du. Honek hitzez hitz honelaxe dio:

"Mozioa, preso-gaixoen aldekoa

Azken hamarkadetan, euskal herritargoaren gehiengoak aldarrikatu eta erreklamatu du pertsona ororen giza eskubideak errespetatzeko, beti ere berorien edozein bortxaketa arbuiatuz eta gatazkak elkarrizketaren bidez konpontzeko jarrera hartu zuen.

Euskal gizartearen konstantzia demokrazia eta etika aldarrikatzeko garaian derrigorrezkoa izan da denoi aukerak eskaintzeko etapa berri bati aurre egiteko orduan. Indarkeriaren ondorioen aurrean, biktima eta presoan aurrean, iritsi da neurri berriak ezartzeko garaia, eta gatazka politikoa konpontzeko posibilitateei heltzeko, horretarako soil-soilik printzipio demokratikoak baliatuz.

Azken hilabeteotan jakin dugu badaudela espetxean larriki gaixorik dauden presoak. Horregatik, Udalbatzari ondorengo proposamena egiten diogu:

1.- Udal honek, Nazioarteko eta Espainiako araudia aplikatuz, eskatzen du gaixotasun larria edo sendaezina duten presoan askatasun-baldintzatua.

2.- Erabaki hau bidaltzea Madrileko Barne Ministerioari eta Kartzela Zaintzeko Juezari".

Ondoren mintzatu dira:

* Peña andreak (EAJ/PNV) esan du, bi mozioen artean ez zegoelako alde handiegirik, eurek alternatiboa izan nahi zuen mozio bat aurkeztu zuten, nahiz eta nabarduraren egin beharreko elementu batzuek badaudela uste duen. Haren esanen arabera, azken hamarkadetan, euskal herritargoaren gehiengoak pertsona ororen giza-eskubideak errespetatu behar direla aldarrikatu eta erreklamatu du. Horraino denak ados daude, alabaina errefusatzen dute berorien edozein urraketa, eta gatazkak konpontzeko erreminta bakarra elkarrizketa dela adierazten dute. Haren aburuz euskal gizarteak behin eta berriz aldarrikatu ditu demokrazia eta etika, eta uste du hori funtsezkoa izan dela denek etapa berri bati aurre egin ahal izateko. Horrela, uste du indarkeriaren ondorioei, biktima eta presoan aurrean, neurri berriak hartzeko ordua iritsi dela, eta gatazka politikoa -ez dagoenik ukatuko ez duena- konpontzeko aukerari heltzeko, horretarako, jakina, printzipio demokratikoak bakarrik baliatuz. Haren ustetan, egia da, entzun dute eta komunikabideetan egunero ateratzen ari da, oso gaixorik dauden presoak daudela espetxeetan. Horregatik, hain

zuzen ere, BILDUK aurkezturiko mozioaren alternatibo bat aurkeztu nahi zioten Udalbatzari. Honek lehenengo puntuan zera dio: Udal honek, Espainiako eta nazioarteko araudia aplikatuz, eskatzen du sendaezin edo gaixotasun larria duten presoek askatasun baldintzatua. Zenbat diren zenbatzen hasi gabe, eskatzen dutena da, Espainiako eta nazioarteko araudia aplikatzeko, eta egoera horretan dauden guztiei askatasun baldintzatua emateko. Berdin du hamahiru, hamabi, bat edo hogeita lau izatea, gaineratu du. Azkenik akordioa Madrileko Barne Ministerioari eta Espetxeak Zaintzeko Juezari tramitatzeke, eskatzen da. Lehen esaten zuen moduan, aldea ez da hain handia, baina, bere ustez, garrantzitsua bai da, bere aburuz, herriak esaten duena garrantzitsua delako. Bera ziur dago herriaren nahia interpretatzeko garaian diferentziak egongo direla, baina uste du ez daitekeela diferente interpretatu indarrean dagoen legearen aplikazioa. Eta hori aintzat hartuta, hain zuzen ere, eskatzen dute egoera horretan dauden preso guztiei indarrean dagoen legeria aplikatzeko eta baldintzapeko askatasuna emateko.

* Herzog jaunak (PP) esan du bere Taldeak uste duela Udalak mozio horretan aitatzen den gaia ikusteko eskumenik ez duela. Haren aburuz, nahiz eta mozioaren testuarekin gehixeago edo gutxixeago solidarizatu daitekeen, Udalean ikustea lekuz kanpoko kontua da. Hortaz, ez dute abstenitzeko asmorik, ez dela bidezkoa iruditzen zaielako, ezta bozkatu ere, baldin eta, Udalbatzak alde aurretik bidezkotasuna ez badu bozkatzeko.

* Mendoza alkate jaunak (O.E. BILDU) esan du kasu honetan bidezkotasuna, osoko bilkuratan alde aurretik bozkatu gabe tratatu izan diren beste hainbat mozioetan bezalako delako, eta beraz, kasu honetan ere ez dutela bozkatu.

* Rodriguez jaunak (Socialistas Vascos - Euskal Sozialistak) esan du Zigor Kodea eta Espetxeetako Araudia oso argiak direla gai horri dagokionean. Juezak, osasunaren inguruko inguruabar zenbait emanez gero, espetxe-onurak aplikatu ahal izango ditu eta gaixorik dagoen presoak kartzelatik atera. Horregatik, dio, ez da presoaren eskubide bat, espetxeko administrazioarena baizik. Presoak duintasunez hiltzeko eskubidea du, horrek esan nahi du kartzelan ez hiltzeko eskubidea duela. Haatik horrek ez du esan nahi, ezker abertzaleak planteatzen duen moduan, berehala kartzelatik atera behar duenik. Espainiako espetxe-legeria oso esku-zabala da eta kartzelatua birgizarteratu dadin egina da. Hortaz, eginiko delituak oso larriak eta mesprezagarriak izanagatik, aurreikusitako baldintza objektiboak ematen badira, hots, presoak gaixotasun sendaezina eta terminala badu, orduan

jasoko ditu gaixorik dagoen presoak espetxeko onurak. Era berean, gogorarazi behar da gaixorik dauden presoek beharrezko tratamendu egokia jasotzen dutela bai kartzelan bertan edo ospitale publikoetan, espetxean tratamendu hori ematea ezinezkoa denean. Sozialistak legea betetzearen eta erabaki judizialak errespetatzearen aldekoak dira. Hortaz, preso hauetako edozeinek, bakarka, osasun arazoengatik kartzelatik ateratzeko eskaera egiten badie espetxeetako erakundeei, jakin badakite juezek indarrean dagoen legeriaren arabera jardungo dutela, duela gutxi egin duten moduan. Haren aburuz, BILDUK herri guztietan aurkeztu duen mozio honekin Gipuzkoa lurraldeko herri mailan burutzen ari diren kanpainari erantzun nahi dio, hauteskunde kanpainan eskua sartzeko asmoarekin, hain zuzen gure zuzenbide-estatuan presoek eskubideak ez direla errespetatzen erakutsi nahian. Era berean, ez dute ulertzen nola BILDUK mozioan adierazten duen hau herri honen gehiengoaren desioa dela, herritarren arazoak, gutxienez Errenteriakoena, krisia dela eta punitzen ari direnak, askozaz larriagoak direlarik. Hori guztiagatik, bere Taldea Legeak agintzen duenaren eta juezek bidezkoa ikusten dutenaren barruan egongo da, gaineratu du. Eta horregatik, hain zuzen ere, mozioaren aurkako bozka emango dute.

* Diez jaunak (O.E. BILDU) esan du Talde Sozialistako ordezkaria BILDUK aurkezturiko mozioari buruz aritu dela eta ez EAJK aurkezturikoari buruz. Horregatik gustatuko litzaioke Eusko Alderdi Jeltzaleari eskatzea, nabardura txikien kontua zelako, ona izango litzakeela adostasun batera iritsi eta elkarrekin eginiko mozioa aurkeztea. Hori ezinezkoa izan denez, EAJ-k alternatibo bat aurkeztu du. Berak BILDUK aurkezturiko mozioa defendatuko du eta herrian Josu Uribetxeberria presoaren inguruan azken hil honetan gertaturiko jazoeretan oinarrituz esango ditu esan beharrekoak. Horrela, Auzitegi Nazionalako Zigor-aretoaren Lehenengo Atalak irailaren 23an baieztatu zuen Joseba Uribetxeberria preso arrasatearraren baldintzapeko askatasuna, gisa horretan amaiera eman zitzaiolarik giza-ikuspegitik onargarria eta sozialki jasagarria ez den egoerari. Haren aburuz ez daiteke esan erabaki hark justizia egiten zuenik, Josuk aspaldidanik libre egon beharko zukeelako Espainiako legeria bera aplikatuta, alegia, alderdi Sozialistako udalbatza-kideak aitatzten zuena. Hala ere, bihotz-aringarri moduan hartu zuten ingurukoek eta, oro har, euskal gizarteak, bere horretan preso mantendu nahi zutenen burugogorkeria nolakoa zen ikusita harritua baitzegoen. Fiskaltzak azken unera arte aske ez uzteko bere jarrerari eutsi zion, medikuak presoak ez zegoela hiltzerian adieraziz eginiko

txostenean oinarrituz. Bere iritziz, hitz horiek sekula ikusi gabeko giza-gabetasun maila adierazten zuten, Estatuko botereak herri honetan ohituta gaituen ohiko krudeltasuna gainditzen zutena. Fiskaltzak, medikuek, Espainiako politikari eta komunikabide-sektore okerrenak txalotu eta baldintzatu, jarrera hori soilik gorrotoan eta mendeku-nahian esplika daitekeelarik. Alabaina, uste du, asmo horrek tupust egiten duela euskal gizartearen dagoen ideia zabalduarekin, inor ez dela irabaztun suertatu pentsatzen duelako, alde guztiak galdu dutela baizik. Egoera ere puntu-puntaraino eramán dute, eta azken asteotan zerbait argi geratu bada, hori zera da: numantiar jarrerek inori ez diotela onik egiten. Ezta Estatu bati ere, azkenean bere aurka bihurtu zaion arazo bat askozaz lehenago konpondu zezakeelako. Bere taldeak drama honetan inork ez duela ezer irabazi pentsatzen du. Aitzitik, uste du, badela garaia alde guztiek era positiboan apustua egiteko, alegia, inork galdu gabe, denak irabazian ateratzeko. Apustu hau -dio- lehenengo eta behin Espainiako espetxeetan etengabe urratzen diren giza eskubideak errespetatzean datza. Bere aburuz, une egokia da Uribetxeberriak bakean bere gaixotasun larriari aurre egiteko, eta, uste du, gainontzeko herritarrek gertatu dena berriro ez gertatzeko ondorioak aterako dituztela. Hori horrela, hausnarketa egiteko unea dela uste dute, baina, denek, dio. Gertatutakotik denek atera behar dituzte ondorioak, eta pentsatzen dute inor ez litekeela horretatik libre geratu. Gainera, Josu Uribetxeberriarekin bizituriko egoerak iraganera itzuli ditu, eta bakearen atarian baldin badaude ere, ia-ia atea irekitzen ari baldin badira ere, oraindik ez dira gatazkaren kiribiletik irten. Eta oinarritzko eskubideak urratzen dituen politika horiek mantenduz gero, ez dute gizarte-enfrentamendua hornitu baino egiten, jende askoren sufrimendua mutur muturreraino eramanez, gizarte honi konponbidearen ateak gurutzatzea eta bake-bidean aurrera egitea eragozten diete. Bere aburuz, bakea eta soluziobidea ez daitezke abordatu arerio politikoa garaitu eta interes alderdikoen ikuspuntutik. Haren esanetan gizarte honek behar eta merezi du behingoz bakea erdiestea; gizartearen gehiengoak erakutsi duelako horretarako prest eta preparatuta dagoela, haatik, uste du, gobernuek ezin dutela eragotzi bide horretan aurrera egitea iraganeko politikari helduz eta liskarra hornituz. Une honek beraiantzat inflexio puntu bat suposatzen du, hots, egoera honetan denak ateratzen direla galduan jabetuta, berori gainditu nahi dute denak irabazten hasteko, beti ere, hau berriro gerta ez dadin, presoen biziaren eta beraien sendien aldeko apustua eginez. Horretarako, bere aburuz, beharrezkoa da espetxe-politika ez erabiltzea helburu politikoa lortzeko, konponbidea abordatzeko baizik. Izan ere,

une hauetan oso gaixorik dauden hamahiru preso politiko daude, eta horiek dituzten gaixotasunen tratamendua eta jarraipena bateraezinak dira espetxean mantentzearekin, hain zuzen espetxean ezin dutelako jaso behar dituzten mediku-zainketak eta tratamendua. Bere aburuz, egoera hau muturreraino irits daiteke, eta "Josu" kasu berri bat izan dezakete garaiz ez badituzte kartzelatik ateratzen. Arrazoi horregatik eskatzen diete gainontzeko alderdi politikoei mozioaren alde egiteko, sendaezin gaixotasuna duten hamahiru presoen baldintzapeko askatasuna eskatzeko, hain zuzen beharrezko osasun-tratamenduak izan ditzaten, eta egoera honek ez dezan suposatu gehituriko zigor bat preso eta hauen familientzako. Eta mozioaren alde bozkatzeko eskatzen diete agenda-politikotik krudeltasuna eta mendekua ateratzea beharrezkoa dela uste dutelako; eremu honetan garaipen politikorik inork ez izatea nahi dutelako, eta bere taldea konbentziturik dagoelako garaia dela denak irabazten hasteko, hain zuzen denak galtzen ari diren egoera aldatuta.

* Herzog jaunak (PP) esan du, egia baldin bada gai hauek agenda-politikotik atera behar direla, zertarako eraman duten hara, galdetu die. Uste du, justu, esaten denaren aurkakoa egiten dela. Bere Taldeak uste du Errenteriako udalak ez duela gai honetan eskumenik, nahiz eta gizatasunaren aldetik, euretako edozeinek elkartasuna adieraz dezakeen edozeinen dramarekiko. Eta sinesteko, esan du, eurek ere, besteak bezalaxe, solidarizatzen direla. Haatik, joera bateko presoak izan edo bestekoak izateagatik ez dute Errenteriako udalera ekarriko. Bere iritziz, ez dute gai hau tramitatzeke eskumenik, ezta han ikusteko ere, eta, are gutxiago bozkatzeko, esan du.

* Rodriguez jaunak (Socialistas Vascos - Euskal Sozialistak) esan du EAJ-ren mozioa aitatu ez badu, sartu edo ez sartu, ez delako bozkatu dela. Edonola ere, mozio batentzat zein bestearentzat eurek iritzi bera dute. Berari, pertsonalki, sentimendu aldetik oso ondo iruditzen zaio BILDUko bozeramaileak esandakoak, alabaina, bere lagun asko bezala, kontrako egoerak bizitzen dituzte. Uste du lehen esandakoak argi uzten duela juezen erabakiak defendatzen jarraituko dutela, eta inork ez die esango aurrean jartzeko ari ez direnik lanean, aitzitik sukalde-lanean ari dira zoritxarrez aspaldidanik bizi duten egoera honetatik irteteko.

* Peña andreak (EAJ/PNV) esan du mozioa idatziz aurkezteko formatuarekin egina dagoela-eta esandakoen inguruan zerbait aipatu nahi duela. Bere iritziz, ukaezina da bere taldeak akordioetara iristeko duen nahia. Uste du horren adibide dela

osoko bilkura hasi aurretik mozio bat mahai gainean uzteko eskatu dietela eta bere Taldeak ontzat eman duena. Haren esanetan mozio alternatiboa 17:50ean aurkeztu dute eta osoko bilkura 18:30ean zen, eta denei kopiak banatu dizkiete. Osoko bilkurako deia ostiralean egin zen, mozioa, aldiz, astelehenean egin zuten eta, esplikazio modura, esan behar du Udaletxetik at inprimatua izan dela, gaur EAJren ordenagailuak ez zuelako funtzionatzen. Edonola ere, norbaitek akordio batera ez iristeko asmoa zegoela uste bazuen, berak horri ezezko borobila esaten dio. BILDUko bozeramaileak eginiko mintzaldiaren inguruan -hitzaldian mozioaren testuaren eremuan baino zabalago jardun baitu- esan behar du pozten dela hark eginiko adierazpen guztiaz entzuteaz, eta gaur, entzundakoak entzunda, bera pertsonalki, behin ere baino harroago sentitzen dela Alderdi Jeltzalekoa izateaz, zeren eta, Diez jauna (O.E. BILDU) berarekin bat etorriko dela uste du, hark esandakoak EAJ aspaldidanik ari dela esaten. Hortaz, bada, dio, albiste ona da denak aurrera begiratu nahi izatea, eta denek uste izatea nahikoa sufritu dutela, eta bakea zimendu onak hartuta eraiki behar dela, eta ez hala-holako zimenduekin.

* Diez jaunak (O.E. BILDU) esan du eurek bazutela iraganeko garaien inguruan sakontzeko diskurtsorik; Galindo, Amedo eta Dominguez bezalakoetan jarduteko, alegia. Pertsona horiek, bost urte espetxean igaro ostean, zergatik dauden kalean. Zein gaixotasun sendaezin zituzten orain kalean dauden jaun horiek, galdetu du. Haatik, uste dute garai berri batzuetan daudela; pentsatzen zuten gainontzekoak hurbil zitekeela eta bide berri bat abiatu elkarrekin, non une honetan denak sartuta daudela uste baitu. Jakin badakite, PPko udalbatza-kideak esaten duen moduan, Udalak ez duela honen gainean eskumenik, baina, uste du, eurek ordezkatzeko dutena ordezkatzeko dutelako, hots, Errenteriako herria. Horregatik, mozio bat ateratzen bada, eta gehiengo ateratzen bada, begibistakoa da Errenteriako herriak pentsatzen duena ordezkatzeko ari direla. Jabetuta daude, halaber, izan dezakeen eragin handixeago edo txikixeagoa mozio hauek aurrera ateratzen dituzten herri kopuruaren arabera dela, baina uste du garrantzitsuena dela denak lanean hastea afera hori aurrera ateratzeko. Eta, berriro dio, iraganera begira zezakeela, baina nahiago izan du etorkizunari begiratu, ikusi orain non dauden eta nora joan nahi duten. Gaur gaia aurrera ateratzeko gutxiengo adostasun bat eskatzen dute, eta iruditzen zaie interesgarria izango litzakeela alderdi Sozialista -argi edukiz mendeku-politikak ahaztu behar dituztela- gai honekin besteekin batera lanean aritzea eta BILDUren mozioarekin bat egitea, hain zuzen bertan eskatzen dena, Galindoren kasuan bezalaxe -gaixorik

bazegoen-, espetxetik ateratzeko giza-eskubide kontua delako. Kontua ez da hori baino, esan du. Galindo espetxetik irten zutenean, orduan alkate zegoen Buen jaunak esaten zuen moduan, nahiz eta gustatu ez, Legea goitik behera bete zela baieztatzen zuen. Hortaz, berari asko gustatuko litzaioke hamahiru pertsona horiek kartzelatik irten eta zera entzutea: "ez zait gustatzen, baina legea goitik behera bete da".

* Rodriguez jaunak (Socialistas Vascos - Euskal Sozialistak) esan du berak ez dakiela entzun duen lehen berak esandakoa. Deigarria egiten zaizkio Diez jaunak (O.E. BILDU) esan dituenak, herri honetako iragan zorigaitzean gertaturiko kontu zenbait aitatzeta eta ahaztea orain lurpean dauden beste hainbat. Bestalde, Alkatea saiatu da bere bulegoan, eta hitz egiten ari denak, alderdi Sozialistaren izenean, bere eskuetan zegoen guztia egin du gai honi buruzko akordio bat lortzeko. Hitz egin dute eta hortxe egon dira, beste batzuetan, igual, hitz egitera ere hurbilduko ez lirakeenean. Berak ez du azken bolada honetan gertatzen ari diren beste ekintzen berri emateko asmorik; ezta garai honetan euren buruzagi handienak ere egiten ari diren aitorpenak aitatzeko, baina uste du inork ez diezaieketela leporatu ez direla saiatzen ari, edo ez direla lanean ari. Besterik da -dio- batzuek laster egin nahi dutela eta gauzak erraz ahaztu. Hala ere, ez dute lana uzteko asmorik, eta kontu irauli ahal izateko, hortxe egoteko asmoa dute. Horregatik, faborez, eskatzen du beraiek irakurtzeko eta esaten dutenarekin behatza zaurian ez sartzeko, eta eurek afera honekin duten kontu bera eskatzen die besteei. Badirudi -dio- badagoela honetaz ohartu nahi ez duenik, eta, beharbada, eurek ere gauzak beste modu batera egiten hasi behar dute, baina errespetu pittin bat izateko eskatuz amaitu du.

* Herzog jaunak (PP) uste du han esan diren kontuetatik bere Taldeak norbaiten zorigaitza nahiko lukeela, baina argi utzi nahi du bere pentsamenduaren arabera, drama hauek sufritzen dituen eta akabera-arazoekin dagoena, kalean egon beharko lukeela inolako bereizkuntzarik egin gabe. Ez bat edo bestea, baizik eta egoera hori bizi duen oro, gaineratu du. Berak argiago ez dezake esan.

* Mendoza alkate jaunak (O.E. BILDU) esan du berak ez lukeela nahiko kontu honekin jarrerak aurka ipini. Berak, pertsonalki, uste du bakoitzak ahal duena egiten duela, edo gutxienez Udal honetan egiten ari direla, uste du. Era berean, pentsatzen du Udal honetako zinegotzi dezentek badutela borondaterik bide horretatik aurrera egiteko. Zintzotasun osoarekin sinesten du; gainera berak sinesten du horien zintzotasunean eta prestutasunean, gutxienez aurre egiten

dieten kontu zenbaitetan. Uste du esaten ari denarekin batek baino gehiagok jakingo duela zeri buruz ari den. Haatik, halaber, giza-eskubideen errespetuari buruzko jarrera batetik, gustatuko litzaiokeen afera arazorik gabe eta normaltasun dezenterekin atera izan balitz, zeren eta bere jarrera politikotik eta, Alkate modura, pentsatzen du funtsezko kontuak direla. Zentzu horretan uste du denek eman behar dituztela urratsak eta pauso horiek iritsiko direla. Berea ez da kritika desegilea, ezta gutxiago ere, kritika eraikitzailea da, Udal honetan zenbait bide horretan aurrera egiteko egiten ari den ahalegina eta erakusten ari den esfortzurik kendu gabe. Ez gutxiago eta ez gehiago, gaineratu du. Beste zenbaitetan egongo dira gustatuko ez diren BILDUren jarrerak, baina bere taldeak horiek ere entzun beharko ditu. Beste zenbait BILDUren ustez ez dira egokienak izaten, eta esaten ditu. Bera, amaitzeko, gaur han adierazi den borondate positiboarekin geratzen da. Bere aburuz badago aurrera egiteko borondaterik, eta bere irudiko elkarrekin aurrera egitea da garrantzitsuena. Zentzu horretan gaur ezinezkoa izan da eta pena du, baina ziur dago beste batean hori ahal izango dela.

* Udaleko idazkariordeak esan du idatziz egin nahiko lukeela gai hauei buruzko txostena, hain zuzen horrelako mozioak, adierazpen instituzionalak direnak, Udaleko gaietatik kanpo geratzen direlako. Gaur, berak, ezer esaten ez duena, abstentziotzat hartuko du Aktan jasotzeko. Baina azpimarratzen du gai honi buruzko txostena aurkeztuko duela mozio mota hauek Udalbatzaren osoko bilkuran tratatu behar diren edo ez jakiteko.

Mintzaldiak amaitutakoan.

EAJ/PNVen preso-gaixoen aldeko mozio alternatiboa bozkatzeko jarritakoan.

Udalbatzak, gehiengoz, aldeko 12 botorekin (O.E. BILDU, Errenteriako Ezkerra, EAJ/PNV), aurkako 7 botorekin (Socialistas Vascos - Euskal Sozialistak) eta 2 abstentzios (PP),

E R A B A K I D U

Onartzea EAJ/PNVen preso-gaixoen aldeko mozio alternatiboa, akordio honen azalpen-zatian jasota geratu dena.

Jarraian,

O.E. BILDUK preso-gaixoen alde aurkezturiko mozioa bozkatu dute.

Udalbatzak, gehiengoz, aldeko 9 botorekin (O.E. BILDU, Errenteriako Ezkerra), 7 boto aurka (Socialistas Vascos - Euskal Sozialistak) eta 5 abstentzioz (EAJ/PNV, PP),

E R A B A K I D U

Onartzea O.E. BILDUK preso-gaixoen alde aurkezturiko mozioa, akordio honen azalpen-zatian jasota geratu dena.

Jarraian,

* Herzog jaunak (PP), legeak hala aginduta, abstenitu dela esan du.

Mintzaldia amaitutakoan.

14. Mozioa, Franquismoaren krimenen aurkako Euskal Plataformak kereila jartzeko aurkezturikoa.

Frankismoaren krimenen aurka kereila jartzeko Euskal Plataformak aurkezturiko mozioa irakurri dute, O.E. BILDU eta Errenteriako Ezkerra udal taldeek izenpetua. Honek hitzez hitz zera dio:

"ARRAZOIEN AZALPENA

1936.eko Uztailean Francok burututako altxamendu militar-faxistak Errepublikaren bidezko Gobernua eta Gobernu Autonomiko guztiak ezabatu zituen, industri, landa eta finantza oligarkiaren laguntzarekin, Elizaren agintari eta partaideek tarteko, eta erregimen politiko totalitario bat ezarri zuen askatasunaren, justizia sozialaren eta Estatuko Nazioen eta Herrien eskubideen aldeko pertsona ororen suntsitze fisikoa eraginaz.

Diktadura hura, ideologikoki "nacional-catolicismo" delakoaren zutabeetan finkatua, armadak, finantza eta industria oligarkiak, lur-jabeen klaseak eta Elizak hurrengoko berrogei urteetan mantendu zuten errepresio bortitza eta jeneralizatuaren bitartez edozein oposizio saihestuaz, torturak, "paseoak", heriotza-zigorak, eta gainontzeko kondenak jarriaz erregimenaren aldeko epaileen bitartez, atxilotuak inongo defentsa aukerarik izan gabe.

Francoren heriotzaren ondoren, herriaren borrokek eta presio internazionalak frankistak behartu zituzten nolabaiteko aldaketa batzuk egitera, "trantsizio politikoa" delakoaren babesarekin, zeinek inpunitate guztia bermatzen zien 1977.eko Amnistia Legea medio. Prozedura guzti honetan botere politikoa, judiziala, ekonomikoa, militarra eta errepresiboa mantentzea lortu zuten, frankismoaren zutabe nagusienak bermatuaz: Estatuaren batasuna, Kapitalismoaren jabetza eta lehentasuna edozein

interes sozialetik gain, eta Elizaren estatus pribilegiatua.

"Trantsizio" horretako urteetan torturak eta erailketak jarraitu zuten poliziaren eta para-polizien esku, eta baita manifestazioen errepresio bortitzak ere, estatus hori mantentzeko asmoz. Egun, herrien autodeterminazioaren aurkako mantentzen den jarrera, Ibarretxeri, alderdi sozialistari eta ezker abertzaleko partaideei epaiketa saiakera ezaguna bezalakoa; erakunde politikoak legez-kanpo lagatzea; egunkari nahiz irratiaren itxierak; Entzutegi Nazionalaren epaiketa antzuak; eta abar luze batek zera adierazten du nabarmen: diktadoreak utzi zuen "lotua eta ondo lotua" hor dirauela Borbon monarkiaren bitartez.

Baina "trantsizio" hartatik hogeita hamabost urte geroago argentinar epaile batek frankismoaren aurkako kereila bat onartu du genozidio eta gizateriaren aurkako delituengatik, preskriba-ezinak eta inongo "azken puntuko legeak" amnistiaterik ezin dituenak. Nahiz eta erakunde internazionaletik izan, kereila honek frankismoaren zutabeak zartatzen hasia du, hainbat memoriaren aldeko erakundeek urteetan zehar ahalegintzen ari garen bezala. Beraz, Egiaren, Justiziaren eta Erreparazioaren aldeko une garrantzitsu baten aurrean gaude, milaka eta milaka errepresaliatuaren duintasuna lortzeko ahalmen berezia bilakatuz.

Esandako guzti honegatik, *Frankismoaren Krimenen Aurkako Kereilaren Euskal Plataformak*, *Altafaylla Kultur Taldea*, *CNT Euskal Herria*, *Durango 1936 Kultur Elkarte*, *Euskal Memoria Fundazioa*, *Eusko Lurra Fundazioa*, *Egiari Zor Fundazioa*, *Garraxika Taldea*, *Gernika Batzordea*, *Goldatu Elkarte*, *Intxorta 1937 Kultur Elkarte*, *Lau Haizetara Gogoan Elkarte*, *Martxoak 3 Elkarte*, *Oroituz eta Sare Antifaxista Elkarte*ek osatzen dutena, ondoko proposamena luzatzen dizue:

MOZIOA

1.- *Errenderiko Udaletxeak 1931.ean bide onez burututako Errepublika eta Gobernu Espainol, Katalan, Galego eta Euskaldunaren aurka 1936.eko Uztailean Francok antolatutako altxamendu militar-faxista kondenatzen du.*

2.- *Errenderiko Udaletxeak gerora ezarritako diktadura erregimena kondenatzen du, berrogei urteetan zehar eragindako triskantza odoltsuengatik justizia soziala aldarrikatzen zutenen aurka eta baita Katalunia, Galizia eta Euskal Herriaren eskubide nazionalak aldarrikatzen zutenen aurka.*

3.- *Errenderiko Udaletxeak kolpe militar haren alde eta gerora bere gobernuen alde egin zuten industria, nekazal eta finantza oligarkiak eta Elizaren agintari eta partaideak salatzen ditu.*

4.- *Errenderiko Udaletxeak 1977.eko Amnistia Legea salatzen du, frankismoaren inpunitatea eragin zuelako eta inongo garbiketarik egin ez zutelako botere esturketan, batez ere diktaduraren arlo juridiko eta errepresiboetan (armada, polizia eta guardia zibila).*

5.- *Errenderiko Udaletxeak 1977.eko Amnistia Legea ezabatzea eskatzen du, eta altxamendu militarragatik, erregimen frankistagatik eta Estatu terrorismoagatik errepresaliatuak izan zirenei bere eskubideak bermatzeko ahaleginetan ardura hartuko du, erregimen haren EGIA plazaratzen, bere oinordekoek egiten ari diren historiaren errelato faltsua salatuaz; JUZTIZIA aldarrikatzen, egungo inpunitatea saihestuaz eta frankisten*

erantzukizuna exijituaz; milaka eta milaka biktimentzat ERREPARAZIO duin eta diskriminazio gabea eskatzen; eta, azkenik, gizarteak behar dituen aldaketa sozio-ekonomikoak, juridikoak eta instituzionalak eragiten, ERREPIKA-EZINAREN BERMEA ezartzeko.

6.- Ildo honetan, Errenderiko Udaletxeak bere laguntza eta atxikimendua ematen dio Argentinako Errepublikan, Buenos Aireseko 1 Epategian, 4591/10 Kereilari, zein Maria Servini de Cubria Epailleak daraman genozidioaren eta gizateriaren aurkako frankismoaren krimenegatik.

7.- Errenderiko Udaletxeak hiritar orori eskatzen dio Kereila honen alde egin dezan, bai kereilatzaile gisa errepresiorik sufritu duenak, berak edo bere familiakoren batek; edo baita diktaduraren aurka bere salaketa eginaz eta atxikimendu pertsonala sinatuaz".

Ondoren, mintzatu dira:

* Ferradas jaunak (Errenteriako Ezkerra) esan du mozio hau ez dela Ezker Anitza - Izquierda Unida alderdiarena, eurek berori eztabaidatu dadin abalatu baino ez dutela egin. Euren mozioa izan balitz, beste modu batera idatzita egongo litzatekeela, gaineratu du. Behin hori esandakoan, adierazi nahi du ONUren Giza Eskubideen Bulegoaren aholkuak bete izan balira, ziur aski mozio horrek ez zukeela zentzurik izango. Izan ere, hamalau edo hamabost taldek -batzuk gertuago eta besteak urrunago daudenak- aurkezten duten mozioan funtsean bi gauza eskatzen dituztela uste du: alde batetik, 1936ko altxamendu militarren kondena eta altxamendu horren osteko erresumaren gaitzespena, eta bestetik, 1977ko Amnistia Legea deuseztatzea. Berak esan behar du lege hori egun indarrean dagoen konstituzio aurrekoa dela, eta denbora pasa ahala argi baino ilun gehiago erakutsi duela. Izan ere, bere iritziz, alderdi politikoak legeztatzearen truk onartu baitzen Lege hori, non ONUk, ongi aski adierazten duen moduan, aurreikusitako gabeko auto-amnistia baita, eta Espainiari eskatzen zaio Amnistiaren Legea ez hartzeko oztopotzat gizakiaren aurka eginiko krimenak epaitzeko. Zoritxarrez, duela gutxi frogatu ahal izan duten moduan, frankismoaren biktimek ez dute babesik eta bide judizialik aurkitu frankismoko krimenak ikertzeko, eta beste herrialdeetako erakunde judizialetara jo behar izan dute hemen egin ahal izan ez zena aurrera ateratzeko. Amaitzeko esan nahi du, modu honetako ekintzekin edo une honetan bizitzen ari diren beste batzuekin batera -autonomia erkidegoetako krisia, edo egungo Konstituzioaren barruan dauden eskubideak ez betetzea, esaterako, konstituzio hori sagaritzen duten erakunderen baten funtzionamendu eskasa-, uste du bide emango diela bigarren trantsizio bati, zeina, gutxienez bere taldeak, lehentxeago edo beranduxeago emango dela uste baitu.

* Herzog jaunak (PP) esan du aipamen pare bat egin nahi dituela mozioaren ebazpen-zatiaren inguruan. Izan ere, laugarren artikuluan esaten du Errenteriako Udalak salatzen duela 1977ko Amnistia Legeak suposatu zuen injustizia, frankisten inpunitatea kontsakratu zuelako eta diktaduraren botere-egiturak ez zituelako garbitu, bereziki aparatu juridiko eta hertsagarriak (Armada, Polizia eta Guardia Zibila). Bere aburuz, hemen kontraesana ematen da, izan ere, nolatan izango da amnistia bat injustizia, galdetu du. Definizioz amnistia justiziaren absentzia delako. Bere iritziz, justizia exekutatzeko ez bada, gertaera zenbait ez punitzeagatik ez da ematen injustiziarik. Bosgarren puntuan zera esaten da: "Errenteriako Udalak 1977ko Amnistia-legea ezabatu dezan eskatzen da, eta hartu beharreko neurriak hartuko ditu 1936ko altxamendu militarretatik, erregimen frankistatik eta Estatu terrorismoagatik errepresaliatuak izan zirenei bere eskubideak bermatzearren EGIA plazaratzeko...". Berak horri esan behar dio amnistia bat ez daitekeela indargabetu, horrek memoriaren galera eta artxibo-deuseztatzea suposatzen duelako. Funtzionarioen batek artxiboak gorde izan balitu, prebarikatuko zukeen eta espediente administratiboa edota penala irekitzeko zioa izango litzateke.

Hau da, amnistia heriotzaren antzekoa da, ez du atzera bueltarik. Orduan berak ez daki hura aitatzeko zentzu gehiegirik ote duen. Bestalde, Buenos Aires, Errepublika Argentinako Auzitegi atzerritar baten babesa tokiz kanpoko kontua dela iruditzen zaie. Gainontzekoan ez dute ezer gehiago esateko. Altxamendu frankistaren aurka daude, orduan eman ziren gertaeren aurka, eta, erraza izango ez bada ere, aurkitzen diren erantzukizunak argitzearen alde daude. Baina amnistia baten aurka egotea iruditzen zaie behiek hegan egiten duela baieztatzearen antzekoa dela.

* Peña andreak (EAJ/PNV), Frankismoko krimenen aurkako kereilarako Euskal Plataformaren ekimenaren inguruan, esan behar du EAJ/PNV bere alderdiak kondenatzen duela eta kondenatu zuela, besteren artean, Francok 1936an eginiko altxamendu faxista. Orduan bertan aurre egin zioten basakeria militarri; askatasunen defentsa odolekin ordaindu zuten eta milaka emakume eta gizonek eman zuten euren bizia herri honegatik. Euren larrutan pairatu behar izan zituzten ekintza zatarra bezain basatiaren ondorioak, berrogei urtez euskal generazio ezberdinei erresuma hark inposatu zuen erbesteratzea, kartzela, errepresioa, umiltzea, etab., haien giza-eskubideak orduan ere etengabe urratuak izan baitziren. 1977an EAJk sostengatu zuen Amnistia-legea, orduan, demokraziarako trantsizio-garai hartan, politika-jarduera burutu ahal izateko derrigorrez eman beharreko urrasterat hartu zuelako. Amnistia-lege hark preso politiko errepresaliatu

guztiak espetxetik irtetea ahalbidetu zuen, atzerrira joanak itzultzea eta aurreko erresumak bidegabekeriaz agindu eta oraindik burutzeke zeuden kasu guztiak desegitea. 1977ko Legeak amaiera eman zion erresuma totalitario bati, baina orduko aparatu errepresio-gileak ere onuratuak suertatu ziren bakean eta askatasunean gizarte berri bat, denen artean, demokrazia eraiki nahi zutenen eskuzabaltasunaz. Gaur dugun gizartea bezalakoa, memoria duela eta frankismoa betirako lurperatu nahi zutenen biktime inozenteak errekonozituz. Bera, Eusko Alderdi Jeltzaile gisa, etxe barrura begira jartzen denean harro sentitzen da militanteekiko, baita basakeria haren aurka borroka egin zuten pertsona oroengatik, gehien estimatzen zutena, bizia alegia, eman zutelako. Ondorioz, memoria historikoa eta diktadurako biktimei ordain justua ematearren hartuko diren neurri guztiak sostengatuko dituzte. Ulertu, ulertzen dute banaka ekintza judizialak hasteko beharra sentitzen dutenen interesa, hots, urteetan urratuak izan diren eskubideak berreskuratzearren bidezkoak ikusten dituztenak egiteko. Era berean, ulertu eta sostengatzen dute Buenos Airesko 10 zk.ko Auzitegian aurkezturiko 4591/10 kereilaren bidez, edo, mozioan esaten den moduan, beste ekimenen bidez euren eskubideak exijitu nahi dituztenak. Alabaina esan behar dute EAJk ez duela bideragarria ikusten kolektiboki edo erakunde aldetik jardutea, izan ere, horraino irits daitezke, ez Udalbatza hori bakarrik, baita beste instituzio ezberdinak ere, non legitimazio juridikorik gabe, ezin baitituzte proposaturiko neurriak hartu. Biktimen tokian jarrita, berriz, uste du ez litzatekeela justua izango euren sentimendu librean ordain-bideetara jotzea erabaki dutenen, alderdi-interesaren eta erabilpen politikoaren baitan jartzea. Berak *"off the record"* entzun du mozioa puntuz puntu bozkatzeko eskaera egin behar dutela, hortaz, horrela egingo ote den zain geratzen dira.

* Rodriguez jaunak (Socialistas Vascos - Euskal Sozialistak) esan du, bera mozioa puntuz puntu bozkatzeko faborez eskatuz hasiko dela, zeren eta horrela ez bada egiten, puntu batzuetan ados egonda ere, aurka bozkatu beharko baitukete. Gaineratu duenez, Errenteriako Udalak 2006ko uztailean onartu zuen 1936ko altxamenduaren aurkako testu bat. Zehatzeago esatearren, uztailearen 19ko, asteazkena, Diario Vascon dakar Errenteriako Udaleko talde guztiak onartu zutela, hain zuzen uztailearen 18a zela-eta, hondokoa dioen idatzia: "egun hauetan ospatzen da "II. Errepublikaren gobernu legitimoaren aurka altxatu zen militarren estatu-kolpea". Horregatik, talde hauek beharrezkoa eta premiazkoa ikusten dute Altxamendu Militarra deiturikoaren ondorio latzak jasan zituzten pertsona eta kolektiboaren errekonozimendu politikoaren

soziala eta etikoa egitea". Berak horrekin esan nahi du Errenteriako Udalak eman zuela bere irizpena 36ko altxamenduaren aurka, hain zuzen 2006ko udan. Mozioari dagokionez, berriz, guda zibila eta ondorengo frankismoaren diktadura bihurtu zuen kolpe militarra kondenatuz, orain esan behar dute mozio horrek Espainiak 70 eta 80ko hamarkadetan demokraziarako bidean bizi izan zuen trantsizio-prozesuaren ikuspegi erabat desitxuratua erakusten duela, eta bertatik eurek bat etorri ez daitezkeen ondorio partidistak ateratzen dituela. Haren esanen arabera, ez zen erraza izan frankismoa deuseztatzea eta Estatuko segurtasun-indarrak demokratizatzea, hala nola ejertzitua. Gainera, demokratizatzeko prozesuan azaldu zen oztoporik larrienetako bat terrorismoa eta atentatu odoltsua izan zen, epe horretan bostehun baino lagun gehiago erail zituzten eta milaka ekintza terrorista burutu, galera askorekin eta administrazioa eta partikularrentzako kostu handiekin. Bere aburuz, mozio honek, besteak beste, alde batera uzten du demokratizatzeko prozesua mantsotzeko orduan terroristek izan zuten erantzukizuna eta intentzio guztiarekin nahasten ditu beste motatako aldarrikapenak, esaterako, autodeterminazio-eskubidea PSE eta EAJko partaideei eginiko juizioak bezalako ekintza itxuragabeak, edo talde terroristaren adar politikoa legez kanpo uztea, etab. Era berean, ezinezko kontu bat planteatzen du, hots, 1977ko Amnistia-legea indarririk gabe uztea eta haren ondorioak leheneratzea, horrek paradoxikoki baldin bada ere, frankismoaren aurka borrokatu zuten eta horregatik zigortuak izan ziren espainol guztiak espetxera eramango lituzkeelako. Eurei, interpretazio tendentzioso guztiagatik aintzat hartuta ere, positiboa iruditzen zaie atzerriko Epaile batek erabaki izana frankismoaren krimenengatik kalteturiko pertsona guztien erreklamazioak hartzea eta erantzukizun horiek argitzeko prozesu bat irekitzea. Horregatik, nabardura guztiekin eta sakoneko desadostasun guztiekin bada ere, puntuz puntu bozkatzeko bada, bere taldeak lehenengoa eta seigarrena sostengatu dezake, zazpigarrenean abstenitu, eta gainontzekoetan aurka bozkatuko du.

* Lepez de Echezarreta andreak (O.E. BILDU) esan du mozio hori ez dutela eurek aurkeztu, eta beraz, eurek ez du arazorik puntuz puntu bozkatzeko, nahiz eta ez izan BILDUK aurkeztua eta bertan ez egon mozio aurkeztu zuenetako inor. Gaineratu duenez, eurek mozioa babestu dute, nahiz eta, doinua bera ez zaien gehiegi gustatzen. Hala ere, bi ideia edo nahi dituzte azpimarratu: alde batetik, testuan jasotzen da egia, justizia eta konponketaren beharra, eta eurek uste dute hori oso-oso garrantzitsua dela, sartu gabe 1977ko Amnistiak zeini egin zion kalte eta zeini on. Hortaz iruditzen zaie memoria

historikoa berreskuratzea ezinbesteko lana dela, beraiei esker ezagutzen dutelako hobeto egia bera eta horrek lagunduko dielako horrelakorik berriro ez dadin gertatu. Bestalde, PSOEk mozioak trantsizio bera kuestionatzen duela esan badu ere, berak uste du hura zein egoeratan eman zen oso serio egin beharreko hausnarketa dela, hain zuzen aurrera begira gauzak modu demokratikoan eta ondo egiten jarraitu nahi badute.

Mintzaldiak amaitutakoan.

Rodriguez jaunak (Socialistas Vascos - Euskal Sozialistak) eskatuta, mozioa puntuz puntu bozkatu dute, eta emaitza, ondorengo hauxe izan da:

Mozioaren lehenengo puntua bozkatzeko jarritakoan.

Udalbatzak, aho batez,

E R A B A K I D U

Onartzea mozioaren lehenengo puntua, zeinak hitzez hitz zera baitio: "1. *Errenderiko Udaletxeak 1931.ean bide onez burututako Errepublika eta Gobernu Espainol, Katalan, Galego eta Euskaldunaren aurka 1936.eko Uztailean Francok antolatutako altxamendu militar-faxista kondenatzen du*".

Jarraian,

Mozioaren bigarren puntua bozkatu dute.

Udalbatzak, gehiengoz, aldeko 14 botorekin (O.E. BIDU, Errenteriako Ezkerra, EAJ/PNV, PP) eta aurkako 7 botorekin (Socialistas Vascos - Euskal Sozialistak),

E R A B A K I D U

Onartzea mozioaren bigarren puntua, zeinak hitzez hitz zera baitio: 2.- *Errenderiko Udaletxeak gerora ezarritako diktadura erregimena kondenatzen du, berrogei urteetan zehar eragindako triskantza odoltsuagatik justizia soziala aldarrikatzen zutenen aurka eta baita Katalunia, Galizia eta Euskal Herriaren eskubide nazionalak aldarrikatzen zutenen aurka*".

Jarraian,

Mozioaren hirugarren puntua bozkatu dute.

Udalbatzak, gehiengoz, aldeko 11 botorekin (O.E. BIDU, Errenteriako Ezkerra, PP), aurkako 7 botorekin (Socialistas Vascos - Euskal Sozialistak) eta 3 abstentzioz (EAJ/PNV),

E R A B A K I D U

Onartzea mozioaren hirugarren puntua, zeinak hitzez hitz zera baitio: 3.- *Errenderiko Udaletxeak kolpe militar haren alde eta gerora bere gobernuen alde egin zuten industria, nekazal eta finantza oligarkiak eta Elizaren agintari eta partaideak salatzen ditu*".

Jarraian,

Mozioaren laugarren puntua bozkatu dute:

Udalbatzak, gehiengoz, aldeko 9 botorekin (O.E. BIDU, Errenteriako Ezkerra), aurkako 9 boto (Socialistas Vascos - Euskal Sozialistak, PP) eta 3 abstentzios (EAJ/PNV), eta Alkateak kalitatezkoa botoa baliatuz,

E R A B A K I D U

Onartzea mozioaren laugarren puntua, zeinak hitzez hitz zera baitio: 4.- *Errenderiko Udaletxeak 1977.eko Amnistia Legea salatzen du, frankismoaren inpunitatea eragin zuelako eta inongo garbiketarik egin ez zutelako botere estrukturatan, batez ere diktaduraren arlo juridiko eta errepresiboetan (armada, polizia eta guardia zibila)*".

Jarraian,

Mozioaren bosgarren puntua bozkatu dute.

Udalbatzak, gehiengoz, aldeko 9 botorekin (O.E. BIDU, Errenteriako Ezkerra), aurkako 9 boto (Socialistas Vascos - Euskal Sozialistak, PP) eta 3 abstentzios (EAJ/PNV), eta Alkateak kalitatezkoa botoa baliatuz,

E R A B A K I D U

Onartzea mozioaren bosgarren puntua, zeinak hitzez hitz zera baitio: 5.- *Errenderiko Udaletxeak 1977.eko Amnistia Legea ezabatzea eskatzen du, eta altxamendu militarrikatik, erregimen frankistagatik eta Estatu terrorismoagatik errepresaliatuak izan zirenei bere eskubideak bermatzeko ahaleginetan ardura hartuko du, erregimen haren EGIA plazaratzen, bere oinordekoek egiten ari diren historiaren errelato faltsua salatuaz; JUZTIZIA aldarrikatzen, egungo inpunitatea saihestuaz eta frankisten erantzukizuna exijituaz; milaka eta milaka biktimentzat ERREPARAZIO duin eta diskriminazio gabea eskatzen; eta, azkenik, gizarteak behar dituen aldaketa sozio-ekonomikoak, juridikoak eta instituzionalak eragiten, ERREPIKA-EZINAREN BERMEA ezartzeko*".

Jarraian,

Mozioaren seigarren puntua bozkatu dute.

Udalbatzak, gehiengoz, aldeko 19 botorekin (O.E. BIDU, Errenteriako Ezkerra, Socialistas Vasco - Euskal Sozialistak, EAJ/PNV) eta aurkako 2 botorekin (PP),

E R A B A K I D U

Onartzea mozioaren seigarren puntua, zeinak hitzez hitz zera baitio: 6.- *Ildo honetan, Errenderiko Udaletxeak bere laguntza eta atxikimendua ematen dio Argentinako Errepublikan, Buenos Aireseko 1 Epaitegian, 4591/10 Kereilari, zein Maria Servini de Cubria Epailleak daraman genozidioaren eta gizateriaren aurkako frankismoaren krimenegatik*".

Jarraian,

Mozioaren zazpigarren puntua bozkatu dute.

Udalbatzak, gehiengoz, aldeko 11 botorekin (O.E. BIDU, Errenteriako Ezkerra, PP) eta 10 abstentziaz (Socialistas Vasco - Euskal Sozialistak, EAJ/PNV),

E R A B A K I D U

Onartzea mozioaren zazpigarren puntua, zeinak hitzez hitz zera baitio: 7.- *Errenderiko Udaletxeak hiritar orori eskatzen dio Kereila honen alde egin dezan, bai kereilatzaile gisa errepresiorik sufritu duenak, berak edo bere familiakoren batek; edo baita diktaduraren aurka bere salaketa eginaz eta atxikimendu pertsonala sinatuaz*".

15. Galdera-eskariak.

Puntu honen inguruan ondorengoak mintzatu dira:

* Herzog jaunak (PP) arren eskatu du Udala interesatu dadin Gabierrotako Auzo Elkarteak Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailari transformadorea kentzeko eginiko eskaeraz eta haiek eginiko demandan aholkatu dezan.

* Mendoza alkate jaunak (O.E. BILDU) erantzun du, esanez, Udal honek eta bereziki Mantinimendu eta Hirigintzako zinegotzi-delegatuak Gabierrotako Auzo Elkartearekin eta Iberdrolarekin gai horri buruzko harremanak izan dituela.

Jarraian,

* Peña andreak (EAJ/PNV) esan du modu ortodoxo samarrean egin badu ere, batere asmo txarrik gabe, baina uste du lehen Kutxari buruzko aferan ez zaio erantzuteko aukerarik eman, eta Alkateari erregu bat edo aholku bat eman nahiko lioke, hain zuzen, bere taldeko bozeramailea lasaitzeko. Izan ere, bilkura-areto hartan kolore askoko bozketak egiten dira, eta hori dio Udal Gobernu Taldearen aurkako inolako konplotarik ez dagoelako. Eta BILDUren bozeramailea lasaitu nahi du, esanez, lehen egin duen hausnarketa bera egiten badu udalaz gaindiko beste politika-motataz, koherentea izan eta berdin egiteko BILDUrekin, hain zuzen organismo horrek berak alderdi Sozialistarekin akordioak egin dituelako.

Jarraian,

* Jendartean zegoen lagun batek hitz egin du Eguzkiren izenean. Haren esanen arabera, talde hark duela lau hilabete Garoña ixteari buruzko mozioa aurkeztu zuen eta Udalbatzak onartu. Mozio hartan hartu beharreko hainbat neurri aitatzen zituzten eta jakin nahi du zer egin den eta zer informazio dagoen haren inguruan.

* Peña andreak (EAJ/PNV), Udalak Kutxan duen ordezkari gisa, erantzun du, esanez, Udalak hartutako akordioaren ziurtagiria jaso zuela Idazkariarengandik. Eta bertan adierazten zen moduan, berak Kutxaren Kontseilura eraman zuela. Hortaz, berak zegokiona egin zuen eta oraingoz Kutxak ez du ezer erabaki.

* Mendoza alkate jaunak (O.E. BILDU) esan du etorkizunen hartuko diren akordioen berri izan beharko luketela.

Mintzaldiak amaitutakoan.

Eta aztertu beharreko gai gehiagorik ez zegoenez, Alkateak bilkura amaitutzat eman du egun bereko 20:25 zirela. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin Akta hau egin dut Erkidego Autonomoko paper ofizialean, _____zenbakitik _____ra, eta nirekin batera Alkateak sinatu du. Egiaztatzen dut.